

aditza badut

Xabier Lasa

LAPSUSA ZUZENTZEN

Ofizioz losintxari

Tertuliano jatorraren jokabidearen kode ez idatzi batek dio Madrilgo tertulietan parte hartzeko ezinbesteko dela Juan Carlos monarkarekin harreman *ona* edukitzea. Halaxe dago diala, losintxari zurizalez josia. Horien erretolika kontrasesankorrak ez du barkamenik merezi. Betidanik goraipatu dute borboiaren —demokrazia espaniarraren salbatzailearen tituludunaren— ustezko jakinduria diskurtsoak atontzerakoan. Egunotan, ordea, «gastelania inoiz ez dela inposatua izan» aipamen penagarriaren kontura, argitu digute

Horrenbesteko tertuliano madrildar dokumentatugabeen ondoan, pozgarri egiten dira Navarro epailea edo Javier Ortizen ahotsak. Hala ere, Ortizi ohartarazi beharko zaio euskal errealitateaz busti nahi horretan, ezinbestekoa duela EGUNKARIA ere irakurtzea. Izan ere, ez da egia Montalban-Saramago-Atxagaren EBren aldeko manifestua ez zela inon argitaratu. Apirilaren 20ko alean, hemen argitaratu baitzen. Bestela ere, prentsa egunero begiztatzen duten REkoek zuzendu ziezaioketeen *lapsus*-a. Baldin eta titularren azpian datozen euskarazko letrak irakurtzeko ohiturarik badute.

hitzaldiak besteek prestatzen dizkiotela. Inplizitoki adierazi digute bagenekiena, eta beti izkutatu diotena entzule inkautoari. Milikari patetiko guztien artean, kuttunetakoa dudan Fernando Jauregik ere eman dit zer idatzia. Gutxi dira bera bezain zintzo, koherente eta temati. Afrikako gose-teaz ari badira ere tertulian, iaioa dugu loa galarazten dioten obsesio pertsonalak antenaratzen. Hauteskundeetan tertulianoak bando baten alde erabat bustiko direla aitortzen bakarra izan den honek, artean Pepe Rei bazuen jomuga, orain Tonino Carotone abeslaria dabilki hitzetik hortzera, duela gutxi Haika erakundearen kontzertuan parte hartu zuelako.

LABURAEAN

ETB 'HAUTESKUNDE KANPAINA'

Nicolas Redondo Terreros eta Arnaldo Otegi elkarriketarako

Bihar gaueko 21:00ak aldera EHko hautagai Arnaldo Otegi elkarriketarako du Jaime Otamendik ETB1 katean. ETB2n, berriz, Iñigo Herce eta Uxue Barkosek PSE-EEko Nicolas Redondo Terreros elkarriketarako dute, 21:25ean. Eta kate bereko *Políticamente incorrecto* saioan (23:30), eztabaida izango da IU-EB, EH eta EAJ-EAko ordezkariekin.

La2 kateko bi dokumental saio bukatuko dira gaur

Paraísos cercanos en Centroamérica eta *Otros pueblos* dokumental saioetako azkeneko atalak ikus ahal izango dira gaur gauean La2 katean. Ertamerikako paradisuei eskainitako saila El Salvadorri buruzko erreportaia batekin bukatuko da (21:00etan). Ondoren, 21:35ean, Tom-buctu hiri mitikoa bisitatuko dute *Otros pueblos* saioan.

ETB2 'EUROPA, EUROPA'

Alemanioa etorkin turkiarren egoera aztergai


Gaur goizeko 10:45ean, 60ko hamarkadan etorkin turkiarren Alemanian pairatu behar izan zuten egoerari buruzko erreportaia emango dute *Europa, Europa* saioan. Turkiarren testigantza hunkigarriak entzun ahal izango dira bertan.

Andres Aberasturik hitzaldi bat emango du bihar Donostian

La televisión no es el televisor izenburuko hitzaldia emango du bihar Donostian Andres Aberasturi kazetariak. Maria Cristina hotelean izango da, 20:00etan.

THAMER BIRAWI DONOSTIAKO HERRI IRRATIKO 'ALJAMA' IRRATSAIOKO ARDURADUNA

ZUBI LANA



GARI GARAIALDE

«Halako zerbait egin beharra sentitzen nuen»

Herri Irratian irratsaio bat egiten hasiko da etzi Thamer Birawi palestinarra, kultura arabiarra euskaldunoi gerturatzeko asmoz.

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Palestinako Nablus herrian jaio zen Thamer Birawi. Mundu osoan bidaiatzen ibili zen, eta Erroman denbora dezente bizitzen egon zen. Han ezagutu zuen bere emaztea, eta duela sei urte Euskal Herrira etorri zen bizitzera, Tolosara. Euskal

Herriko Palestinaren Lagunen Elkarteko fundatzailea da. Arabiar hizkuntzako klaseak ematen ditu. Tolosan euskaraz ikasi du. Eta orain astero irratsaio bat egingo du Herri Irratian.

■ Nola sortu da irratsaioa egiteko ideia, eta zer helburrarekin?

Leiho bat ireki nahi diogu ez-

berdina denari, kultur ezberdinei eta bereziki arabiar kultura-ri. Hemen dauden dogma eta estereotipoak hautsi nahi ditugu. Arabiar kultura, tradizioa, musika, nolakoak diren jakiteko aukera izango dute hemendik aurrera Herri Irratiko entzuleek. Zubi bat izan daiteke arabiar mundutik hona bizitzera etorri den jendearen eta euskaldunen artean. Etorkin askok ez dute espaziorik, ez dira ondo sentitzen. Euren ahotsa entzun dadila nahi dugu.

■ Nolako edukiek osatuko dute saioa?

Ekimen kulturalen berri eman-got, eta hainbat pertsonaia elkarriketarako ditut. Hemen-go kulturen eta hizkuntzetan arabiarrengandik zer gelditu den azaltzen ere saiatuko naiz. Jendearen jakin-mina piztu nahi dugu.

■ Euskal Herriko Palestinaren Lagunak elkarteko fundatzaile gisa, nola ikusten dituzu bi herrien arteko harremanak?

Esaten da historian zehar ez zela harreman askorik egon arabiarren eta euskaldunen artean. Musulmanak hona ez zirela iritsi esaten da. Alde batetik hori zalantzan jar daiteke. Baina niri antzinako historia ez zait gehiegi inporta. Gaur egun, ordea, harremana berria eta gaztea da. Sentitzen dugu trukeak indartu eta hobetu egin daitezkeela, harremanak behintzat pozoindu gabe daude, eta hori aprobetxatu behar dugu. Palestina eta Euskal Herriaren arteko kontaktoak ugartzea oso ona izan daiteke bi herrientzat.

■ Irratsaio hau egitea tes-tuinguru horretan kokatzen duzu, ezta?

Bai. Gainera, nire inguruan jendeak esaten zidan zerbait egin behar nuela. Nik ere halako zerbait egin behar nuela sentitzen nuen. Elkartearen bitartez ere ari gara bestelako ekimenak antolatzen, euskaldunek Palestinako egoera hobeto ezagutu dezaten.

«Irratsaioa zubi bat izan daiteke arabiar mundutik etorritakoen eta euskaldunen artean»

EMISIO ORDUA

Asteartero, 10:45ean.

Herri Irratiko *Muxutruk* magazinaren barruan, Thamer Birawi palestinarrak *Aljama* saioa egingo du asteartero. Ordu laurden bat iraungo du, goizeko 10:45etik 11:00etara bitartean.

■ Komunikabideen alorrean Al-Quds egunkari palestinarrekin kolaboratzen duzu. Irratian zer edo zer egin al duzu lehenagotik?

Orain arte elkarriketarako eta saio bereziak egin izan ditut. Baina hau da lehenengo aldia asteroko saio bat egingo dudana. Ez dugu soilik Palestinaz hitz egingo, arabiar munduarekin zerikusia duen guztiaz baizik. Herri Irratiarekin lagunen bitartez jarri ginen harremanetan. Saio batzuetara gonbidatu ninduten, eta egun batean proposamena egin nien. Ideia ego-kia iruditu zitzaizten, eta *Muxutruk* magazinekoek ilusio handiz hartu dute.

■ Irratsaioak 'Aljama' izena du. Zer esan nahi du?

Jendea biltzen den gunea da. Baina beste erabilera batzuk izan ditu. Iberiar Penintsulan, aljama hirietako arabiar auzoei deitu izan diete. Hiri musulmanetan, berriz, aljama mezkita garrantzitsuen dagoen auzoa da.

■ Zer ezaugarri nabarmen-duko zenuke Palestinako kulturatik?

Tolerantzia, eta irekiak garela azpimarratuko nuke. Besteak onartzen ditugu, baina gure nor-tasuna galdu gabe.